

# ENPRESEN konfiantza

2023KO 2. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL  
kutxa


## 2023KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2023ko bigarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Ingurune ekonomikoak hobera egin duela erakutsi dute emaitzek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta, hortaz, ikuspegia ez da hain ezkorra.

INGURUNE EKONOMIKOARI buruzko enpresen aurreikuspenei dagokienez, % 13,7k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 57,3k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 29,1ek, okerrera egingo duela.




# 1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, **aurreko hiruhilekoaren aldean** ikuspegia ez da hain ezkorra 2023ko bigarren hiruhilekora begira, enpresen aurreikuspenen arabera. Zehazki, galdetutako enpresen % 26,9k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 60,7ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 12,4k okerragoa izango dela aurreikusten du.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, % 18,4ren iritziz hobera egingo du, eta % 20,1en arabera, okerrera. Laginaren gainerako % 61,5ek, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, eskabideek hobera egingo dutela eta prezioek igo egingo direla espero da. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenentzen % 26,9ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 15,4ren iritzian, txikitu. Enpresen % 57,7ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 29,1ek espero du igo egingo direla, eta % 59,0k, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 85,5en arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 14,5ek soilik espero du etekin handiagoak lortzea.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek hain ezkorra ez den ikuspegia erakusten dute aurtengo bigarren hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Hala ere, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek ez dietela beren inbertsio-planei bultzada berria emango.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 15,8k uste du gora egingo duela **2023ko bigarren hiruhilekoan**. % 16,7ren iritziz, berriz, inbertsio-bolumenak behera egingo du. Hortaz, galdetutako enpresen % 67,5 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 79,9k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 11,1ek langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 9k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2023KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: 52,7. Beraz, igo egin da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (46). Horrek esan nahi du enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia baikorra dela, 2023ko bigarren hiruhilekoari begira. Indizea 50 puntutik gora egoteak hedapen-eremuan gaudela adierazten du. Datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian eta eurogunean lortutako datuekin (urtarrileko datua, hurrenez hurren: 51,6 eta 50,3).

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuen inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian; ez dira aurretik azaldutako indizearen osagai. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 23,1ek uste du hobetu egin direla, eta % 17,3k, okertu egin direla. Beraz, % 59,6k uste du atzeriko salmentak mantendu egin direla.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 76,9 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 6k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,6ren ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 19,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 2,1ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 74,8k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 8,1ek dio hobetu egin dela, eta % 17,1ek, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




## 12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inkesta honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten, eta bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen % 76,4k ezagutzen du plana, baina % 18,3k besterik ez du esan funts horien onuradun izan daitekeen proiekturen bat duela.

Next Generation Funtsak ezagutzea



Next Generation Funtsen proiektu onuraduna






A large, stylized logo consisting of the letters 'G' and 'V' in a bold, sans-serif font. The 'G' is a thick, dark grey ring with a white center, and the 'V' is a solid dark grey shape. The logo is positioned on the right side of the slide, partially overlapping the text.

# 2023AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-DIAGRAMA

# 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



## Fitxa teknikoa eta metodologia

---

- EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
- 2023ko otsailean egindako inkestak.